

EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEAREN ARAUTEGIA –Sarriko-, TALDEZ ALDATZEKO

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ikasturte bakoitzean argitaratzen duen Graduako Ikasketen Gestiorako Arautegiak hau ezartzen du:

Ikasleei dei egiten zaie, matrikula egiteko, batez besteko sarrera notaren arabera ordenatuta ikasle berrien kasuan, edo espedienteko kalifikazioetan oinarrituta goragoko mailetako ikasleen kasuan.

Ikasleak taldeetan banatuko da Ikastegiko Batzarrak onartutako irizpidearen arabera, eta, ondorioz, **Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen kasuan –Sarrikoren egoitza–, ikasleak berak hautatuko du maila-taldea.** Hau da, ikasleak nahi duen taldea-maila hauta dezake matrikula egiteko emandako hitzorduaren egunean eta orduan irekita dauden taldeen artetik.

Hala ere, gerta daiteke talde/maila batzuk itxita egotea baina plaza hutsak egotea talde-irakasgai solte batzuetan, eta, horietatik izango dira, hain zuzen ere, talde-irakasgai aldaketak ebazteko prozeduran erabiliko direnak.

Bat etorrita aipatutako arautegiarekin eta unibertsitateko ikasleei buruz indarrean dauden gainerako arauekin, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Batzarrak (Sarriko) honakoa onartu du:

Onartuko diren eskaerak

Maila/hizkuntza jakin batean matrikula egin ondoren, taldez aldatzeko eskaerak bakarrik onartuko dira, baldin eta baldintza hauetakoren bat gertatzen bada: ordu talka, hizkuntza aldatzea, lan arazoak, arazoi bereziak (ikus beherago xehetasunak).

Eskaerak ebazteko irizpideak

Lehentasuna 5. eta 6. deialdietan dauden ikasleen eskaerek izango dute. Behin eskaera horiek ebatzitakoan, gainerakoak hitzordurako ezarritako ordenaren arabera ebatziko dira.

1.- Taldez aldatzea ordu talkagatik

Ikasleek taldez aldatzea eska dezakete (maila bateko edo gehiagoko irakasgai batena edo batzuen), matrikulatuta dauden irakasgaien arteko ordu talka dagoela egiaztatzen dutenean, talka saihesteko behar-beharrezkoa den heinean. Ikasleek zehaztu beharko dute zer irakasgaik egiten duten talka. Taldez aldatzea beti eskatu behar da beheko mailetan gainditu ez diren irakasgaietarako.

Epe bakarra egongo da, bai lehen lauhilekoko irakasgaietarako, bai bigarren lauhilekoko irakasgaietarako. Kanpoan geratuko dira epez kanpo aurkeztutako eskaerak edo beharrezko egiaztatzearekin batera aurkezten ez direnak.

Eskaerak online aurkeztuko dira, fakultatearen webgunean argitaratutako inprimaki baten bidez.

Ikaslearen matrikula uztaila baino geroagokoa bada, ikasleak taldea aldatzeko eskaera bat aurkez dezake arazoi bereziak direla-eta, gehienez ere 7 egun balioduneko epean, matrikula egiten den unetik kontaktzen hasita.

2.- Hizkuntza aldatzea

Ikasleek eskolak jasotzeko hizkuntza, hots, euskaratik/gaztelaniatik ingelesera, eta alderantziz, aldatzeko eska dezake. Aldaketa hori plazak dauden taldean egingo da.

Epe arrunt bat egongo da lehen lauhilekoko irakasgaietarako, eta aparteko epe bat bigarren lauhilekoko irakasgaietarako. Kanpoan geratuko dira epez kanpo aurkeztutako eskaerak.

3.- Taldez aldatzea lan arrazoiak direla eta

Taldez aldatzea eska dezakete astean 20 orduko edo gehiagoko lanaldia dutela egiaztatzen duten ikasleek, baldin eta matrikulazio aldia hasi aurretik sinatutako lan kontratua badute eta beren lanaldia eskoletara joatearekin bateraezina bada. Hori justifikatzeko, Gizarte Segurantzak emandako **lan bizitzaren ziurtagiria** eta dagokion kontratuaren kopia aurkeztu beharko dira.

Epe arrunt bat egongo da lehen lauhilekoko irakasgaietarako. Bigarren lauhilekoko irakasgaietarako aparteko epe bat irekiko da, lan motibazioak jarraitzen duela egiaztatu beharko da eta. Kanpoan geratuko dira epez kanpo aurkeztutako eskaerak.

4.- Taldez aldatzea arrazoi bereziak direla eta.

Ikasle hauek dira maila bereko irakasgai guztiak taldez aldatzeko eska dezaketenak, baldin eta egoera hauetakoren batean badaude, baina exijitutako frogagiriak aurkeztu beharko dituzte nahitaez:

1. **% 33ko edo hortik gorako minusbaliotasuna duten desgaituak.** Aldundiaren edo beste erakunde eskudun baten ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da, duen minusbaliotasunaren ehunekoa egiaztatuz.
2. **Goi mailako kirolaria dela egiaztatuta duena.** Estatuko edo autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ziurtagiria eskatuko da, edo hori egiaztatzen duen UPV/EHUko Kirol Zerbitzuaren ziurtagiria.
3. **Genero indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten ikasleak.** Haren aldeko babes aginduaren kopia erantsi behar da, edo, salbuespen gisa, Ministerio Fiskalaren txostenaren kopia, genero indarkeriaren biktima izateko zantzuak daudela adierazten duena.
4. Mendeko senide baten zaintzaile direla egiaztatzen duten ikasleak. Aldundiak edo erakunde eskudunak emandako ziurtagiria erantsi beharko da.

Arrazoi horiengatik taldez aldatzea eskatzeko zioa gertatzen den unean bertan eska daiteke.

Praktiketako azpitaldez aldatzea

Praktiketako azpitaldez aldatzeko eskaera irakasgaiko irakasleari egin behar zaio zuzen-zuzenean, eta horrek erabakiko du eskatutako aldaketa onartzen duen ala ez, baita berak aldaketa zerrendetan jasoko ere.